



**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

Eusko Legebiltzarreko Euskadiko Autogobernua eguneratzeko Ponentziaren Ebazpena, egun indarrean dagoen Autonomia Estatutua erreformatzeko Lege Proposameneko testu artikulatua idaztea talde tekniko baten esku uzten duena.

Euskadiko autogobernua eguneratzeko Ponentziak, Eusko Legebiltzarrean sortutakoak, adostu du talde tekniko baten esku uztea Autonomia Estatutua erreformatzeko Lege Proposameneko testu artikulatua idazteko lana, honako pautak hauetatik abiatuta:

1. Talde teknikoak indarrean dagoen Autonomia Estatutua erreformatzeko Lege Proposameneko testu artikulaturako hasierako proposamena idatziko du, Euskadiko autogobernua eguneratzeko Legebiltzarreko Ponentziak onartutako Oinarri eta Printzipioekin bat.

Era berean, adostatutako oinarriak errespetatuz, aukera aztertuko eta ahalegina egingo du horien eta aurkeztutako boto partikularren artean bat datozen puntuak aurkitzeko. Helburua da, posible baldin bada, dagoeneko lortutako adostasunak zabaltzea.

Aipatutako adostasunak adieraziko dira, Ponentziak kontutan har ditzan

2. Talde teknikoak bere baitan ezarriko du proposamen hori idazteko egin beharreko lanerako metodoa.

3. Eusko Legebiltzarrak Batzordeak behar dituen baliabideak jarriko ditu, haren zereginak ahalik eta hoberen betetzeko.

4. Euskadiko autogobernua eguneratzeko Ponentziari Lege Proposameneko hasierako proposamena emateko aurreikusitako denbora zortzi hilabetekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 12an

Resolución de la Ponencia del Parlamento Vasco para la actualización del autogobierno de Euskadi por la que se encomienda a un grupo técnico la redacción del texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente.

La Ponencia para la actualización del autogobierno de Euskadi, constituida en el Parlamento Vasco, acuerda encomendar a un grupo técnico la redacción del texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente a partir de las siguientes pautas:

1. El grupo técnico redactará la propuesta inicial de texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente, en congruencia y de conformidad con las Bases y Principios aprobados por la Ponencia parlamentaria para la actualización del autogobierno de Euskadi.

Asimismo, desde el respeto a las bases consensuadas, se contemplará y procurará la posibilidad de hallar puntos de conexión de éstos con los votos particulares presentados en la búsqueda de ampliar, si fuera posible, los consensos ya alcanzados.

Dichos consensos serán identificados a efectos de su consideración por parte de la Ponencia

2. El grupo técnico determinará internamente el método de trabajo a desarrollar para la redacción de la referida propuesta.

3. El Parlamento Vasco procurará los medios que la Comisión requiera para el mejor cumplimiento de sus funciones.

4. El tiempo estimado para la entrega de la propuesta inicial de la Proposición de Ley a la Ponencia para la actualización del autogobierno de Euskadi será de ocho meses.

Vitoria-Gasteiz, 12 de septiembre de 2018



